

Ongi jan, segurki, baina nola ote?

Neska: A! Hor dugu! Jaun-andereak, esku-zarta beroak Nikolas gure lehiakide berriari!

Mutiko: Zer? Zer ari zara, Ana?

Neska: Lehen galdera, Nikolas: zer ote da otordu orekatua?

Mutiko: Eee... Pixka bat denetarik daukan apairua da, elikagai mota guzietarik duena.

Neska: Erantzuna xuxen duzu. Biba zu, Nikolas! Kasu, galdera zailagoa orain. Apairu orekatua nola presta elikagai mota guzietarik hartuz?

Mutiko: Eee... Animalia jatorriko elikagairik, zerealik eta esnekirik jaten baldin badut, apairua orekatu beharko dut bitaminak ekartzen dituzten barazkiz eta fruituz.

Neska: Ufa, iziarazi gaituzu, Nikolas, baina oreka ontsa atxiki duzu.

Mutiko: Milesker, Ana. Eta rolak truka bagenitza?

Neska: Nola ote?

Mutiko: Emazkidazu fitxak, otoi. Milesker. Beraz, Ana maitea, zeri erraten zaio *apairu desorekatua*?

Neska: A... e... Desorekatua... Orduan... zernahi frita hartuko dut, oilasko-kroketak, barazkirik batere ez, fruiturik batere ez, eta... A! Bai! Ahantziko nuen! Gozoki anitz ere. Hortz usteldurak eta obesitatea errazten dute.

Mutiko: Biba zu, Ana! Apairu arrunt desorekatua da. Ulertu duzu zer ez den jan behar osagarria arriskutan ez emateko.

Neska: Milesker. Banekien deus ez zela egokia.

Mutiko: Beraz, Ana, utz ditzagun irri solasak. Erraten ahal ote diguzu zergatik den elikadura orekatua izan behar?

Neska: Osagarria ukaiteko, elikadura anizkuna izan behar da eta apairuetan mota bakoitzeko elikagai baten jatera entseatu.

Mutiko: Bikain, Ana! Sarien emateko tenorea heldu zaigu! Ana, apairu orekatu ezin hobea irabazi duzu, eta nahi bezainbat ur!

Neska: Milesker. Baina biek dugu irabazi, Nikolas. Beraz, opariak ere orekatu behar dira!